

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“N-240 errepidea, 16,700 kilometrotik 19,900 kilometrora, egokitzeko trazadura proiektua” k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak, 2020ko martxoaren 9an, 138/2020 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“N-240 errepidean, 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura, trazadura egokitzeko proiektu”ak nahitaz okupatu beharreko azalera zabaltzea. Kreditu atxikipena.

Diputatuen Kontseiluak, apirilaren 15eko 228/2014 Erabakiaren bidez, onetsi zuen “N-240 errepidean, 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura, trazadura egokitzeko proiektuaren” eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda, eta hori jendaurrean jartzea.

Diputatu Kontseiluaren ekainaren 16ko 314/2015 Erabaki bidez, erantzun zitzaizen aipatutako proiektuaren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egon zen bitartean haren aurka aurkeztutako alegazioei, eta behin betiko onetsi zen zerrenda.

Geroago, 2019ko ekainaren 26ko idazkiaren bidez, Iberdrola Generación SAU sozietatea 2014/10 desjabetze espedientearen agertu zen, zeina “N-240 errepidean, 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura, trazadura egokitzeko proiekturako” hasi baitzen. Idazkiaren xedea da Iberdrola Generación SAU sozietatearen jabetzako lurzati baten titulartasuna egiaztatzea, Legutioko 1 poligonoko 1128 katastroko lurzatiari dagokion 54/000 finkatik desjabetutako azalerari dagokiona. Eskatzen da “desjabetutako azaleratik merkataritza sozietate horren jabetzako gainerrako lurzatiara bitarteko bide-zorra ezartzea, bai eta desjabetutako zatiaren erabilera lagapena ere.”

Gaia aztertu ondoren, eta 2019ko azaroaren 29ko idazkiaren bidez, Errepide Zerbitzuak honako hau jakinarazi zuen:

“Proiektu horretarako zehaztutako desjabetzea katastroko lurzatiaren planoan oinarrituta egin zen. Lurzatiaren plano horrek ez zuen jasotzen idazkian aipatutako 2 zenbakiko putzua dagoen 30x30 metroko lurzatia (Iberdrola Generación SAUk aurkeztua).

Hala ere, Iberdrola Generación SAUk lursail horien titulartasuna egiaztatu ondoren, eta merkataritza sozietate horrek aurkeztutako idazkian eskatutakoa kontuan hartuta, lursail horietarako sarbidea ahalbidetzeko, 54 finkaren desjabetzea handitzea proposatzen da, 7,50 metroko zabalerako bide-zorra eratuz proiektatutako bidearen amaieratik, Legutioko 1 poligonoko 1128 lurzatiarako sarbide gisa balio duena. Horren definizio grafikoa bat dator txosten honekin batera doan 1/600 eskalako planoarekin.

Horretarako, 54/100 finka sortzen da, erantsitako taulan agertzen diren datuetan oinarrituta, eta haren beharrezko bide-zortasunaren azalera 275 m²-ko landa lurzorua da.”

Horrenbestez, eta aipatutako zabalkuntza egiteko, 54/100 finka sortu behar da, zeinaren titularra María Carmen Urquiola Sáez andrea baita desjabetze espedientearen.

Nahitazeko Desjabetze Legearen eta Nahitazeko Desjabetze Arautegiaren 15. artikuluen arabera, okupazioa zabaldu daiteke handitzeak egiteko ezinbestekoak diren ondasunei. Kasu honetan, horiek desjabetzearen helburu, obra edo zerbitzuari ere atxikiko zaizkie. Modu berean, NDk

ezartzen du, desjabetze espedientea 52. artikuluan jasotako premiazko prozeduraz izapidetzen denean, ulertuko dela beteta dagoela desjabetu beharreko ondasunak okupatu behar diren adierazpen izapidea, onartutako eta geroago aldatutako proiektu eta zuinketen arabera; eskubidea emango du berehala okupatzeko. Beraz, desjabetzearen handitzea izapidetu behar da, premiazko prozedura bidez.

Aztertutik Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak — aurrekontu kreditua dagoela adierazten du — eta Desjabetze Atalak egindako txostenak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Handitzea, eranskinean xedatutako eran, “N-240 errepidean, 16,700 kilometrotik 19,900 kilometrora, trazadura egokitzeko proiektuak” okupatu beharreko azalera, gerta daitezkeen nahitaezko desjabetzaren arabera, aldi baterako okupazioetarako, zortasunak jartzeko eta, horien guztien ondorioz, aldatu beharreko zortasunak aldatzeko.

Bigarrena. 877,25 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko 50106.5300.6000002 “Desjabetzeak” partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-937/000.20.1.20), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Hirugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala finka horiei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta xedapen erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean”

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Legutio, Vitoria-Gasteiz, Zigoitiako Udaletxeko lokaletan ager daitezten, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzarenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 25a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Viarías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

N-240 ERREPIDEA, 16.700 KILOMETROTIK 19.900 KILOMETRORA, EGOIKITZEKO TRAZADURA PROIEKTUA
PROYECTO DE TRAZADO DEL ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA N-240 ENTRE EL P.K. 16.700 Y EL P.K. 19.900
ERANSKIN / ANEXO

Esp. / Expte. 14/10-F

FINKAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	BEHIN-BETIKOA		ERAGINDAKO AZALERA M2		EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA			ALDI BATERAKOA	BIDE-ZORTASUNA	7,50 m	DEFINITIVA		
54100	NOMBRE DEL TITULAR URQUIJOLA SAEZ, M. CARMEN	POLIGONO	PARCELA	TERMINO MUNICIPAL LEGUTIO	APROVECHAMIENTO ZELAIA / PRADERA	DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE DE PASO	7,50 m	DIA	HORA
		1	1128						275	29/10/20	10,00